



MADDI SOROA

Baleren Bakaikoa Azurmendi



EHUKO

IRAKASLEA,

EKONOMIALARIA

Idea zaharrak errepikatuta!

G20 DERITZON TALDEAK bere urteroko bilera nagusia egin berri du Australian. Brisbanen bildu ziren munduko herrialde aberatsenak eta horien artean Frantziako Estatua, sortzaile gisa; Espainiakoa gonbidatu iraunkor egin dute. Bileran hauek estatu horietako lehendakariak, banku zentralerako buruzagiak eta ekonomia eta finantzarako ministroak elkartzen dira.

Bileran horietan aitorpen deigarriak egingo dira eta ondorioz burtsek gorabehera nabarigarriak izaten dituzte, espekulatzailen onurarako, dirutzak prest edukitzen baitituzte mozkin oparoak eskuratu ahal izateko. Aitorpen azpimarragarri horiez gain, Brisbanen, 800 neurri ekonomiko (!) proposatu zituzten mundu ekonomia sustatzeko eta hazkunde bidean ipintzeko. Nire ustetan, neurri gehiegi. Hobe gutxiago eta borondate irmoagoa.

Ekonomia hobetzeko neurrien artean bi azpimarratuko nituzke: 1) ustelkeriaren aurka borrokatzea eta 2) multinazionalen jardueraren ekonomikoa garatzen duten herrialdean zergak ordainaraztea. Biak ez dira hutsaren hurrengoak, baina bai nahiko utopikoak

Neurri horien ondorioz, munduko ekonomia %ko 2,1 haziko omen da 2018ra bitartean eta hazkunde horren zaindaria Nazioarteko Diru Funtsak eta Ekonomia Lankidetzaren Garapenerako Antolakuntzak (ELGA/OCDE) gainbegiratu dute. Oker ez banago, hazkunde tasa hori doitu dute behin eta berriro; izan ere, aurreko otsailean %ko 2tik %ko 1,8ra jaitsi zuten eta garbi geratu da ekonomiako aurreikuspenek gutxi irauten dutela gizarte zientzia deritzon diziplina horretan.

Ekonomia hobetzeko neurrien artean bi azpimarratuko nituzke: 1) ustelkeriaren aurka borrokatzea eta 2) multinazionalen jardueraren ekonomikoa garatzen duten herrialdean zergak ordainaraztea. Biak ez dira hutsaren hurrengoak, baina bai nahiko utopikoak.

Tamalez, ustelkeria gure artean erabat txertatuta dago eta zer esanik ez garapen bidean dauden herrialdetan. Horri erantsi behar zaio droga, arma trafikoa eta prostituzioaren inguruko ustelkeria, negozio borobilenak ezkutuko jardueraren horietan baitaude, agintari politikoei bestalderatik begiratzen duten bitartean. Negozio oparo horietan finantza erakundeek ere protagonismo berezia daukate dirua zuritzen.

Bestalde, multinazionalen zergak ordainaraztea jardueraren ekonomikoa garatzen duten herrialdeetan, epe laburrean bederen, ez da batere erraza izango. Begi aurrean dugu gaur egungo EBko buruzagi nagusiak, Jean-Claude Juncker jaunak, egin zuena multinazionalen zerga gutxiago ordain zezaten. Hau da, EBko barnean jarduten zuten multinazionalen Luxenburgoko paradisu fiskala eskaini zien herrialde horietako gobernuburu zenean. Aste-buru horietan Suitzak atzeritar aberatsentzat paradisu fiskala izaten jarraitzea erabaki du.

Espainiako Estatuan diharduten multinazional andanak Irlandan ordaintzen dituzte zergak mozkinen gaineko zerga apalagoak direlako. Hori bai, enpresaburu horiek gero esango digute zer egin behar den lanpostu berriak sortzeko, beraiek etengabe murrizten ari diren bitartean. Haatik, lan erraldoia izango da multinazionalak gizartearen interesen menpe ipini nahi badira.

Munduko azpiegiturak hobetu behar omen dituzte eta horretarako Azpiegituraren Gune Orokorra sortuko dute. Erakunde horren bidez merkataritza hobetu nahi da, batik bat elkartrukeak areagotu. Alta, badakigu, jakin ere, zer-nolako elkartruke ereduak nahi diguten ezarri AEBk eta EBk Atlantiko gaineko Inbertsio eta Merkataritzaren Hitzarmena dela eta, edo bere Pazifikoko aldeko bikia. Izan ere, lehia dela eta, osasun, ingurumen eta gizarte babesek behera egingo dute eta hamarkadetan erdietsitako ongizate estatua gehiago endekatuko zaigu.

Adi egon beharko dugu dagokion erantzuna emateko. ■

